

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Enpresa batek bere balorezko proposamena egin dezan, hori bera bezeroei helarazi diezaien, bezeroekiko harremanak manten ditzan eta, azkenik, diru-sarrerak sor ditzan ezinbestekoak diren baliabideak. Ondoko kategoriatan banatu daitezke: baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza-baliabideak eta finantza-baliabideak. Gurea zehazki baliabide fisikoak direla.

Gure produktuak, gizartearen segurtasuna bermatuko du eta hau sortzeko eta kamioietan eta bestelako ibilgailuetan ezartzeko hainbat baliabide beharko ditugu. Gure aparatoa alkoholometro bat izango da, zein ibilgailuaren puntu zehatz batean ezarriko dugu, hain zuzen, esku-frenoa dagoen lekuan egongo da, hots, beste erraztasunekin batera. Bertan, putz egiteko hodia egongo da, nahi den neurrira luzatzeko aukera egongo dena eta jarraian, behin putz egin eta 5 segundu igaro ondoren, zenbaki bat aterako da ibilgailu bakoitzeko pantailan. Zenbaki hau, gorria edo berdea izango da eta horren arabera, gorria bada debekatua dago gidaritzea eta berdea bada, lanean jarraitu ahalko du langileak.



Hau guztia lortu ahal izateko, prozesu bat jarraitu beharko da kamioiak sortzen dituen enpresetan. Hasteko, guk alkoholimetroa erosiko dugu gure aldetik eta enpresa hauei salduko dizkiegu, ibilgailuetan ezarri ditzaten. Horrez gain, putz egiteko bokilak ere entregatuko dizkiegu eta honako hau aparatoarekin kamioiaren barrutik konektatu beharko dute enpresako langileek. Aipatu beharra dago, gure produktua ikustezina denez, hau da, bokila izan ezik, barruan ezarrita egongo denez, kamioia eraikitzen bukatu baino lehenago ezartzeaz gogoratu beharko duela enpresa sortzaileak, ondoren dena berriro egin behar ez izateko. Hori gutxi balitz bezala, hainbat tresna/herramienta desberdin beharko dira gure aparatoa jartzeko, hala nola, torlojuak...

